

**LARRAULGO UDALA**

(GIPUZKOA)

**2011ko UZTAILAREN 28an, LARRAULGO UDAL PLENO ARETOAN  
EGINDAKO OHIKO UDALBATZAREN AKTA**

2011ko uztailaren 28an, Larraulgo Udaletxeko Pleno Aretoan, arratsaldeko 19.30 orduetan, Xabier Mujika Pagola alkatearen lehendakaritzapean, behean aipatzen diren zinegotziak biltzen dira.

**ALKATEA:** Xabier Mujika Pagola

**ZINEGOTZIAK:** Igor Barandiaran Perez de Arriluzea  
Gotzon Jauregi Sarasola  
Imanol Aranzabal Lasa  
Aritz Usandizaga Larrañaga  
Jon Tejeria Otermin


Bere ezin etorria azaltzen du: Karlos Irazu Muñoa

**IDAZKARIA:** Ane Gomez Urteaga

...//...

Alkate-lehendakari jaunak bilerari hasiera ematen dio, ondorengo gaiak tratatzen direlarik:

- 1. Alkatetza ebazpenen berri ematea.**
- 2. Larraulgo Larrola ustiategiaren inguruetan arto gozoaren likidoak jasotzeko hobi bat egiteko baimena eskaera, J.T.O.**
- 3. Larraulgo Poligono 1, partzela 167-an telefonia mugikor estazio bat jartzeko jarduera eta obra baimena eskaera, Telefonica Moviles España.**
- 4. Ura eta zabor tasetan hobariak eskatzeko arauen onespena , hala bada.**
- 5. D.C.A. andreak eginiko eskaeraren azterketa, hala bada.**
- 6. Udal mapa kartografiko berriei buruz berri ematea, hala bada.**
- 7. Goi karguen soldata eta dietaren onespena, hala bada.**
- 8. J.M.I.M. jaunak eginiko eskaerei erantzuna, hala bada.**
- 9. Haurreskolak Partzuergoak igorritako idatziaren berri ematea, hala bada.**
- 10. Fakturak eta ordainketak.**
- 11. Beste batzuk.**
- 12. Erregu, galderak eta mozioak.**



## LARRAULGO UDALA

(GIPUZKOA)

.../...

### **LEHENENGO PUNTUA** **ALKATETZA EBAZPENEN BERRI EMATEA**

Alkate jaunak azkeneko Udalbatzarretik emandako ebazpenen berri ematen du:

14/2011 Alkateza Ebazpena, ekainaren 21ekoa, Igor Barandiaran Perez de Arrilucea zinegotzia 1. Alkateorde izendatzea, ebazten duena.

15/2011 Alkateza Ebazpena, uztailaren 20koa, 2011ko 1. Hiruhilabeteari dagokion ura eta zabor tasen erroldak onestea, ebazten duena.

Bertaratuak jakinaren gainean gelditzen dira

### **BIGARREN PUNTUA** **LARRAULGO LARROLA USTIATEGIAREN INGURUETAN ARTO GOZOAREN LIKIDOAK JASOTZEKO HOBI BAT EGITEKO BAIMENA ESKAERA, J.T.O.**

Ikusirik J.T.O. jaunak eginiko eskaera, non Larraulgo Larrola ustiategiaren inguruetan arto gozoaren likidoak jasotzeko hobi bat egiteko obra baimena eskaera egiten duen.


Ikusirik, 2011ko uztailaren 28an Udal Aholkulari Teknikoa den Eba Erkizia Brion Arkitektoak eginiko txostenean dioena:

#### ***“LARRAULGO LARROLA USTIATEGIAREN LURSAIL BATEAN HOBI BAT EGITEKO ESKAERARI BURUZKO TXOSTENA***

*J.T.O. jaunak, Larraulgo bere lursailean arto gozoa eta arto berdea botatzen duen salda jasotzeko hobi bat egiteko baimena eskatzen du, egin beharreko lanen azalpena, aurrekontua eta bi plano aurkezten dituelarik. Aurreko dokumentazioa ikusirik, **ZERA ADIERAZTEN DUT:***

*2009-ko maiatzean ustiategiaren inguruko lursailean zola eta hobi bat jartzeko baimena eman zitzaion J.T.O. jaunari. Luzatutako txostenean, hobiak inguruko etxe eta lursailletara gorde beharreko distantziak azaltzen ziren.*

*Urte berdineko urrian, egindako hobiak inguruko etxe eta lursailletara mantendu behar zituen distantziak betetzen ez zituela ikusirik, lanak legezartzeko, hobia lekuz aldatzea agindu zitzaion J.T.O. jaunari.*



## LARRAULGO UDALA

(GIPUZKOA)

*Aurtengo uztailaren 28-an aurkeztutako dokumentazioan, agindutako neurriak gordeko dituen hobi berri bat jartzeko baimena eskatzen da.*

*Hobi hau hormigoi armatuzkoa izango litzateke eta 10.000 litroko edukiera bat izango luke. Hobia kokatuko duen lursaila, Larrola abeltzaintzako ustiategiaren zola berriaren bidearen bestaldean egongo da, Larrola lur ez hiritargarriaren barruan.*

***Larraulgo 69° artikulua** abeltzaintzako ustiategien instalazio eta eraikuntza osagarriak arautzen ditu. Honen arabera, hobia inguruko etxeetatik gutxienez 50 metrotara kokatu beharko da, ondoko lursailaren mugetatik 8 metrotako gutxieneko distantzia mantendu behar delarik.*

*Planoan azaltzen den hobia herri bidetik 3m-tara kokatua dago, Urraitz eta Otsozabal baserrietatik 50m baino gehiagoko distantzia mantenduaz. Antzola Haundiko lurretatik 8 metrotako distantzia gordetzen ditu ere.*

***141/2004 dekretuak**, uztailaren 6koa, abeltzaintzako ustiategietakoa arau teknikoak, higieniko sanitarioak eta ingurumenekoak ezartzen dituenak, bere 2º eranskinean, obra siloen zorua eta paretak iragaitzak izango direla esaten du.*

*Arto gozoaren likidoak jasotzen dituen hobia estankoa izango da. Arto gozoko ur hauek ezingo dira lursailetatik zuzenean zabaldu. Txiza urekin diluitu beharko dira edo eta simaurrarekin nahastu.*

*Baldintza hauek betetzen badira, egokia izango da udal baimena ematea.*

*Gogoratu behar da aurreko bi txostenetan, egindako lurgaineko siloak paisaiaren eragina murriztearren metro bateko altuera gutxieneko duen landarezko itxitura bat eskatu zitzaiola eta oraindik egin gabe dagoela.”*


*Ondoren Gotzon Jauregi zinegotziak galdetzen du ea hobia gainezka egiten badu nora joango diren bertako likidoak.*

*Jon Tejeria zinegotziak erantzuten diolarik, zisternarekin hustutzeko prestatua dagoela.*

*Gaia azterturik, Udalbatza honek, Jon Tejeria zinegotziaren abstentzioarekin, aho batez ondorengo*

### ERABAKITZEN DU:

*LEHENGOA.- J.T.O. jaunak eginiko baimena eskaera onestu, hau da, Larraulgo Larrola ustiategiaren lursail batean hobi bat egiteko baimena eskaera onestu, betiere Udal Aholkulari Teknikoak eginiko txostenean zehazten dituen baldintzak betetzen baditu.*



## LARRAULGO UDALA

(GIPUZKOA)

BIGARRENA.- Indarrean dauden Ordenantza Fiskalen arabera dagokion kitapena onartzea.

HIRUGARRENA.-Erabaki honen berri interesdunari ematea.

### HIRUGARREN PUNTUA

#### **LARRAULGO POLIGONO 1, PARTZELA 167-an TELEFONIA MUGIKOR ESTAZIO BAT JARTZEKO JARDUERA ETA OBRA BAIMENA ESKAERA, TELEFONICA MOVILES ESPAÑA**

Ikusirik Telefonica Moviles Españak eginiko eskaera, non Larraulgo Poligono 1, partzela 167an telefonia mugikor estazio bat jartzeko jarduera eta obra baimena eskaera egiten duen.

Ikusirik, 2011ko uztailaren 28an Udal Aholkulari teknikoa den Eba Erkizia Brion arkitektuak eginiko txostenean dioena:

**“LARRAULGO BEOBIDE ERDIKOA BASERRIKO TEILATUAN ANTENA BAT JARTZEKO JARDUERA ETA OBRA BAIMENAREN ESKAERARI BURUZKO TXOSTENA**

*A.J.M. jaunak, Telefonica Moviles España S.A.-ren izenean, Larraulgo Beobide Erdikoa baserriaren teilatuan telefonia mugikorreko antena batentzat jarduera eta obra lizentzia eskatzeko, F.G.S. ingeniariak sinatutako proiektu bisatua aurkezten du. Hau azterturik, ZERA ADIERAZTEN DUT:*


*Sakeleko telefono deien banaguneko jarduera proiektuak, Beobide Erdikoa baserriaren teilatuko gailurrean kokatuko den antena berriaren ezaugarriak, bete beharreko araudia, aurrekontua, pleguak eta segurtasun neurriak garatzen ditu.*

*Bertan, egin behar diren lanen ezaugarriak deskribatzen dituen memoria eta planoak azaltzen dira. Antenaren aldaketaren aurrekontua 2.923,96 €-koa da.*

*Beobide Erdikoa Larraulgo Lur ez hiritargarran kokaturik dago, bereziki D-20 produkzio zona motako lursailean.*

*Lurraldearen antolamenduaren artezpideek (LAA) esaten duten bezala, antena hau, B motatako zerbitzu ez-linealen instalazio tekniko bat da. Larraulgo araudiaren arabera, honelako erabilerak onargarriak dira D-20 bezalako lur ez hiritargarran eta 52º artikuluan arautuak daude.*

Articulo 52.- Condiciones aplicables a los tendidos aéreos.



## LARRAULGO UDALA

(GIPUZKOA)

*-El Ayuntamiento de Larraul podrá establecer condiciones en lo referente al trazado y configuración de los elementos de tendidos de líneas elécticas y telefónicas aéreas así como de las instalaciones técnicas de servicios de carácter no lineal tipos A y B (\*), con el fin de minimizar su repercusión tanto sobre el paisaje como sobre los aprovechamientos agrícolas y forestales.*

*Telefonia mugikorreko sare hau, interes orokorrekotzat har daiteke Asteasu-Larraul bailararentzat, LAAek esaten duten moduan, telkomunikazioen garapenak landa-zonak inbertsiorako eta enplegua sortzeko duten erakargarritasuna areagotzeko ahalbidetu dezakeelako.*

*2007-ko martxoaren 16-ko aginduaren arabera, Beobide Erdikoa Euskal Kultura ondarearen zerrendan monumentu gisa izendatua dago. Larraulgo araudiaren arabera interes bereziko eraikina da, kontserbazio maila hertsi batekin. Hau honela izanik, dagokion Ondare sailera bidali beharko da bere azterketarako.*

*Beraz, eta ikuspuntu Urbanistiko aldetik jarduera lizentzia emateko arazorik ez dagoela ikusirik, udal arauetara egokitzen dela informatzen dut.”*

Gaia azterturik, bertaratuek, aho batez, ondorengo,

### ERABAKITZEN DUTE

LEHENA.- Telefonica Moviles España S.A.-k eskaturiko Larraulgo Beobide Erdikoa baserriko teilatuan antena bat jartzeko jarduera eta obra baimena eman aurretik, Udal Aholkulari teknikoak eginiko txostenean jasotzen den modura, espedientea Eusko Jaurlaritzako Ondare sailera bidaliko da bere azterketarako.

### LAUGARREN PUNTUA

### **URA ETA ZABOR TASETAN HOBARIAK ESKATZEKO ARAUEN ONESPENA, HALA BADA**


Ikusirik prestatu direla ur hornidura eta zabor tasen hobariak emateko kudeaketa-arauak.

Gaia azterturik, Udalbatza honek, aho batez ondorengo

### ERABAKITZEN DU:

LEHENA: Ur hornidura eta zabor tasen hobariak emateko kudeaketa-arauak onestea. Ondorengoak direlarik:

**“Ur-hornidura eta Zabor tasen hobariak emateko kudeketa-arauak.**



## LARRAULGO UDALA

(GIPUZKOA)

### **1. artikulua. Helburua.**

*Araudi honen helburua honakoa da: Ur hornidura eta zabor tasak ordaintzeko emango diren hobariak arautzea. Hobariak ondorengo artikuluetan zehazten diren baldintzak betetzen dituzten familiek jasoko dute.*

### **2. artikulua. Hobariak eskatu ahal izateko bete beharreko baldintzak.**

*1. Tasen hobariak eskatzeko, familiaburua den zergadunak ondoko baldintza bete behar du:*

*Familiako diru-sarrerak ez ditu inola ere gaindituko araudi honetan zehazten diren mugak.*

*2. Famili unitatea zenbatak osatzen duten zehazteko aurtengo urtarrilaren 1eko Biztanleen Udal-errolan ageri diren datuak hartuko dira kontuan, eskatzailearen etxebizitzari buruz erroldan ageri diren datuak, hain zuzen ere. Eskatzailea etxebizitza horretan erroldatuta egongo da.*

*Errolda osatu ondoren izan diren aldaketak banaka aztertuko dira.*

*3. Familia-gunea osatzen duten guztiak ondorengo baldintzak bete behar dituzte:*

*—Hobaria zein etxetarako eskatzen duten, horretaz gain ez dute beste ondasunik izango; etxebizitzaren eraikin berean dauden trastelekuak eta garajeak ez dira kontuan hartuko, beti ere, eskrituretan lote berdinean deskribaturik daudenean.*

*—Larraulgo Udalean inolako zorrik ez izatea.*

*— Elkarbizitza unitatearen hiri-finken kastro-balioen baturak ez du gainditu behar ehun eta berrogeita hamar mila euroko muga(150.000 €).*

*—Elkarbizitza unitatearen kide bakar batek ere ezin du izan 13,99 zaldi fiskal edo gehiagoko potentzia duen trakzio mekanikoko ibilgailu baten jabe.*

*Hauek ez dira kontuan hartuko:*


*—Lanerako behar-beharrezkoak diren ibilgailuak. Kasu horietan, hala dela egiaztatzen duen agiria aurkeztu behar da.*

*—%65 eko edo gehiagoko elbarritasun maila duten pertsonen gidatzeko egokitutako ibilgailuak, elbarriarenak berarenak baldin badira.*

*—Aulki gurpilduneko elbarritasuna duten personak eramateko erabiltzen diren ibilgailuak, zuzenena edo egokitu ondoren.*

### **3. artikulua. Hobariak zehazteko irizpideak.**

*1. Familia-gune bakoitzaren gehieneko dirusarrerak kalkulatzeko I. eranskinetako taula erabiliko da.*



## LARRAULGO UDALA

(GIPUZKOA)

2. *Ordaindu beharreko tasen arabera kalkulatu da familia- gune bakoitzari dagokion hobaria.*

*Hobariaren zenbatekoa ez da inoiz izango borondatezko epealdian ordaindutako zenbatekoa baino handiagoa.*

*Errekarguak, kostak eta interesak ez dute hobaririk edukiko.*

### **4. artikulua. Hobari-eskaerak egiteko prozedura.**

1. *Eskaerak aurkezteko epeak urtero urtero iragarriko dira ohiko moduan, eta ez da epea luzatzeko aukerarik izango; eskatzailea epe horren barruan gaisorik edota ospitalean egon ez bada behintzat, orduan epea luzatzeko aukera izango da, egoera hori behar bezala egiaztatuz gero.*

2. *Hobaria jasotzeko eskubidea dutela uste duten zergadunek euren eskaera aukeztu behar dute udal honetako bulegoetan, eta eskaerarekin batera honako dokumentuak ere bai:*

— *Eskatzailearen Nazio Nortasun Agiriaren fotokopia.*

— *Elkarbizitza unitateko kide guztiek jasotako urteko irabazien egiaztagiria, hau da, soldata, pentsio edo bestelakoei dagozkienak. Ez dira onartuko bankuek egindako ziurtagiriak.*

— *EEI-k (Estatuko Enplegu Institutuak) egindako ziurtagiria, prestazio ekonomikorik jasotzen ari den agertzen duena.*

— *Ikasten eta diru-laguntzaren gai den etxebizitzan bizi diren familia kideek beharrezko dute ikasle direnak egiaztatzen duen agiria ekartzea, eta 18 urtetik gorakoak, horrez gain, LANBIDE-ko (INEM) egiaztagiri bat ere bai, langabezian daudela dioena.*

— *Eskatzailea etxebizitzaren jabea bada, aurreko urteko Ondasun Higiezinaren gaineko Zerga (kontribuzioa) ordaindu duela egiaztatzen duen agiria aurkeztu behar du; eta maizterra bada, jabearen izena eta bi abizen eman behar ditu.*

— *Famili Kideen Foru Haziendak emandako ondasun ziurtagiriak.*


— *Hobaria jasotzeko kontu korronte zenbakia (20 zenbaki).*

3. *Eskaera bakoitzari dagokion dokumentazioa aztertu eta baloratu ondoren, eta Gizarte Zerbitzuek honi buruzko txostena egin ondoren, Zergabilketa Zerbitzuan 2. artikuluan zehazten diren baldintzak betetzen direla egiaztatuko dira eta ateratzen diren zenbatekoak ordaintzeko proposamena egingo da, 3. Artikuluan aurreikusitakoaren arabera.*

4. *Erabakia interesdunei edo hauen ordezkariak jakinaraziko zaie.*

5. *Urtero-urtero tasa bakoitzari dagokion errolda kaleratzen da eta borondatezko epea izaten da hau ordaintzeko.*

6. *Ematen den hobaria soilik urterako izango dela ulertu behar da.*



## LARRAULGO UDALA

(GIPUZKOA)

*Araua hauek Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALEAN argitaratuko dira.*”

**BIGARRENA:** Aipaturiko arauak Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratzea.

**HIRUGARRENA:** 2011 urterako Ur hornidura eta Zabor tasen hobari eskaerak egiteko epea 2011ko irailaren 1etik 30era finkatzea.

### **BOSTGARREN PUNTUA**

#### **D.C.A. ANDREAK EGINIKO ESKAERAREN AZTERKETA, HALA BADA**

Ikusirik D.C.A. andreak eginiko eskaera, non Zabaleta baserrian urte askotan ez dela inor bizi eta horregatik ur eta zabor tasetan baja emateko eskaera egiten duen.

Ikusirik hainbat kontsulta egin ondoren, posible izango litzatekeela ur hornidura tasan baja ematea, berriro alta eskatuko balu engantxe berria kobratuko zitzaiozlarik. Aldiz, zabor tasetan ezinezkoa litzateke baja ematea, nahiz eta inor ez bizi aipaturiko baserrian.

Gaia aztertu ondoren, bertaratuek, aho batez, ondorengo

#### **ERABAKITZEN DUTE**

**LEHENGOA.-** D.C.A. andreak eskaturiko, Zabaleta baserriko ur hornidura tasari baja ematea, eskaera onestea. Berriro engantxe berria eskatuko balu dagokion kitapena egingo ziozlarik.

**BIGARRENA.-** D.C.A. andreak eskaturiko Zabaleta baserriko zabor tasari baja ematea, eskaera ukatzea. Hala ere, D.C.A. andreari jakinarazi, Udal Ordenantza fiskalak berritzaerakoan hutsik dauden etxeetan tarifa berri bat finkatzeko gaia aztertuko dela.

**HIRUGARRENA:** Erabaki honen berri intersdunari ematea.


### **SEIGARREN PUNTUA**

#### **UDAL MAPA KARTOGRAFIKO BERRIEI BURUZ BERRI EMATEA, HALA BADA**

Ikusirik Udal mapa kartografiko berriak egin direla, A3 formatoan eta handiak, aurrekoak bukatu egin zirelako.

Udalbatza honi proposatzen zaiolarik jendaurrean salgai jartzeko prezio desbesdinak:





## LARRAULGO UDALA

(GIPUZKOA)

- Mapa Kartografiko handia: 3 euro.
- Mapa Kartografiko txikia (A3): 1euro.

Udalbatza honi ere proposatzen zaio, Mapa kartografikoak etxez-etxe banatzea.

Gaia azterturik, Udalbatza honek aho batez ondorengo

### ERABAKITZEN DU:

**LEHENA:** Mapa kartografiko berriak ( handia eta txikia) etxez-etxe banatzea, Larraulgo herrian.

**BIGARRENA:** Mapa kartografiko berriak jendaurrean salgai jartzea ondorengo prezioetan:

- Mapa Kartografiko handia: 3 eurotan.
- Mapa Kartografiko txikia (A3): 1 eurotan.

### **ZAZPIGARREN PUNTUA**

#### **GOI KARGUEN SOLDATA ETA DIETAREN ONESPENA, HALA BADA**

Ikusirik legealdi berria hastera doala eta goi karguen soldata eta dietari buruz aurreko legealdian aplikatzen zena aztertzen dela.

Kontutan izanik krisi garaian gaudela eta gainera Larraulgo Udalak 5 zinegotzi izatetik 7 zinegotzi izatera pasa dela.

Ikusirik aurreko legealdian onarturiko soldata eta dietak, gaur egungo egoerara moldatzeko proposamena, onartzen da batzarkide guztien aldetik.


Gaia azterturik, Udalbatza honek, aho batez, ondorengo

### ERABAKITZEN DU:

**LEHENA:** Alkate-Lehendakari jaunari, hilero 600 euro ordaintzea dieta modura, Larraulgo Udala parte den organu kolegiatuetako bileretan parte hartzeagatik, Udaletxeko bilera desberdinetara etortzeagatik eta egingo dituen kilometraje gastuetarako.

**BIGARRENA:** Larraulgo Udaleko zinegotziei, hilero 150 euro ordaintzea dieta modura, organu kolegiatuetako bileretan parte hartzeagatik, Udaletxeko bilera desberdinetara etortzeagatik eta egiten dituzten kilometraje gastuetako.

### **ZORTZIGARREN PUNTUA**



## LARRAULGO UDALA

(GIPUZKOA)

### **J.M.I.M. JAUNAK EGINIKO ESKAEREI ERANTZUNA, HALA BADA**

Ikusirik J.M.I.M. jaunak 2011ko uztailaren 7an egindako Udalbatzarrean eginiko eskaera, non ondorengoa dioen:

#### ***“Herritarrak Udaleko dinamikan parte hartzeko legezko aukeren berri herrian zabaltzeko eskaria***

*-Nik, J.M.I.M., Larraulgo herritarra naizen aldetik, Udal Batzar honi proposatzen diot Larraulgo Udalak herritarroi azaldu diezagula herritarrok zein legezko aukera dauzkagun Udaleko dinamikan parte hartzeako: proposamenak egin eta defenditzeko, udal informazioa eskatzeko, udal batzordetan parte hartzeko...Proposamen zehatza da legezko aukera horiek eta jarraitu beharreko prozedurak dokumentu batean bildu eta zabaltzea.*


*-Era berean, eta horrekin lotuta, proposatzen dut Plenora datorren gai-zerrenda ere herrian zabaltzea, buzoneatzea eta interneten jartzea gutxienez astebeteko epearekin, Plenoa badelako herritarrok ere zuzenean parte hartzeko udal organo bat, eta parte hartze horrek informazioa ere denbora batekin jasotzea eskatzen duelako. Azkenik, Plenoko erabakiak ere herrian zabaltzea proposatzen dut, paperean zein internetez.”*

Gaia azterturik, Udalbatza honek, aho batez ondorengoa

#### **ERABAKITZEN DU:**

LEHENA: J.M.I.M. jaunak eginiko eskaerari ondorengoa erantzutea:

- **HERRITARRAK PROPOSAMENA EGIN ETA DEFENDITZEKO:** Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen, apirilaren 2ko 7/1985 legean dago araututa: ” *Información y participación ciudadanas*”, 69 artikulutik 72 artikulura. Gaur egun, Herritarrek euren proposamenak egiteko Larraulgo Udal bulegoetara ekartzen dute euren eskaerak, ondoren, Udalbatzarrak aztertu eta dagokion erabakia hartzen du.
- **UDAL INFORMAZIOA ESKATZEKO:** Goian apaturiko legedia kasu honetan ere aplikagarria da. Konkretuki 70.3 artikulua dio: “*Todos los ciudadanos tienen derecho a obtener copias y certificaciones acreditativas de los acuerdos de las Corporaciones locales y sus antecedentes, así como a consultar los archivos y registros en los términos que disponga la legislación de desarrollo del artículo 105, párrafo b), de la Constitución. ...* “ (Kontutan ere izan behar dugu, *Datu Pertsonalak Babesteari buruzko Lege Organikoa, oraingo legedia dela eta pertsona datuak agertzen diren erabakiak hauen eskubideak bortxatzen badituzte ezin daitezkeela eman.*)



## LARRAULGO UDALA

(GIPUZKOA)

- UDAL BATZORDEETAN PARTE HARTZEKO: Larraulgo Udalaren funtzionamendurako, Udal ordezkariak astero biltzen dira batzorde batean. Bertan, Udalbatzarrean tratatuko diren gaiak aztertzen dira eta suertatzen diren beste hainbat gai. Orainarte batzorde hauek itxiak izan dira, hau da, batzarkideak bakarrik hartzen dute parte.
- PLENOTAKO GAI-ZERRENDA, HERRIAN ZABALDU, BUZONEATU ETA INTERNETEN JARTZEA GUTXIENEZ ASTEBETEKO EPEAREKIN: Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen, apirilaren 2ko 7/1985 legeko 46.2.b) puntuak ondorengoa dio:” *Las sesiones plenarias han de convocarse, al menos, con dos días hábiles de antelación...*”

Beraz, gaur egun jarraitzen den sistemaren arabera, gai-zerrenda, bi egun azkarrago bidaltzen zaie zinegotziei. Gai-zerrenda gainera, web orrian eta iragarki taulan jartzen dira, eta El Diario Vasco-ko Larraulgo Kronika idazten duenari igortzen zaio. Toki Araubideari buruz indarrean dauden xedapenen Testu Bateratua, apirilaren 18ko 781/1986 E.D. Legegilearen 81 artikulua dio: “1. La convocatoria para una sesión, ordinaria o extraordinaria, dará lugar a la apertura del correspondiente expediente, en el que deberá constar:

*d)Copia del anuncio en el tablón de edictos del Ayuntamiento o Diputación y, en su caso, prensa local.*

*g)Publicación de los acuerdos en el tablón de edictos.*

-PLENOKO ERABAKIAK ERE HERRIAN ZABALTZEA: Gaur egun zinegotziei bidaltzen zaie eta web orrian jarri (web orria berritu zenean sartzen hasi ziren). Hala ere, legean datorrena betetzeko iragarki taulan aktaren erresumena jarriko da, interesatuek informazio gehiago behar ezker, web orrian eta Udal bulegoetan aurkituko dutelarik.

BIGARRENA: J.M.I.M. jaunari erabaki honen berri ematea.


### **BEDERATZIGARREN PUNTUA**

### **HAURRESKOLAK PARTZUERGOAK IGORRITAKO IDATZIAREN BERRI EMATEA, HALA BADA**

Ikusirik 2011ko uztailaren 19an Haurreskolak Partzuergotik heldu den idatzian azaltzen dela ekainaren 3an igorritako idatzian zehazten zena, hau da 2011ko iraileko haurreskolaren egoera aldatu egiten dela, bi eskaera berri egon direlako, beraz Matrikulatutako haur kopurua 3 izango dela eta haurreskola irekita mantenduko dela.

Aipaturiko azken idatzian zehazten den modura, Larraulgo Haurreskola irekita mantenduko da, ondorengo balditzetan:

-Haurreskola ez da 7 ordu baino gehiago irekiko, haurreskolan 4 haur edo gutxiago baino ez badira.



## LARRAULGO UDALA

(GIPUZKOA)

-Haur kopurua 3tik jaitsiko balitz Haurreskolak Partzuergoak haurreskolaren egoera berriz aztertuko du momentu horretan.

Batzarkideak jakin gainean gelditzen dira.

### HAMARGARREN PUNTUA FAKTURAK ETA ORDAINKETAK

Alkate-Lehendakari jaunak ondorengo faktura zerrenda aurkeztu du:


KIROLZER	133,45
IZFE	528,64
BABESA SUZAI, S.A.	76,50
GRAFICAS ORIA	230,10
GRAFICAS ORIA	41,30
LURKIDE HONDALANAK S.L.	45.340,02
GOIKOETXEA ALBISU S.L.	218,77
UROLA TUBOS	99,19
KOPIDIN	123,89
ULAHI	803,70
GALPARSORO	149,40
DISTRIBUCIONES LOPETEGI	248,28
IMAZ COLOR	98,77
IBERDROLA	15,09
IBERDROLA	10,68
IBERDROLA	124,86
IBERDROLA	139,71
IBERDROLA	81,37
IBERDROLA	9,86
MOVISTAR	80,91
MOVISTAR	18,09
MOVISTAR	88,64
MOVISTAR	20,47
EUSKALTEL	171,92

Udalbatzarrak **ahobatez** hurrengoa,

ERABAKITZEN DU

BAKARRA.- Aipaturiko fakturak, denera **48.853,61** Eurotako kopurua osatzen dutenak onartzea.

### HAMAIKAGARREN PUNTUA



## LARRAULGO UDALA

(GIPUZKOA)

### BESTE BATZUK

#### **11.1. URBELTZ AUZOKO 27,28,29,30,32,33,34,35,37,38 ETA 39 ETXEEN JABEAK EGINIKO ESKAERA AZTERTU, KULTUR-ETXEKO TEILATUAN ANTENA KOLEKTIBOA JARTZEKO.**

Ikusirik Urbeltz auzoko 27,28,29,30,32,33,34,35,37,38 eta 39 etheen jabeak eginiko eskaera, non Kultur-etxekeo teilatuan antena kolektiboa jartzeko baimena eskaera egiten duten.

Ikusirik aipaturiko eskaera 2011ko uztailaren 7an izandako Udalbatzarrean aztertu zela, batzarkideek erabaki bat hartu aurretik, Kultur-etxean antena jartzeko beharrezko azpiegitura nola egin behar zen zehazteko eskatu zitzaielarik Urbeltz auzoko etxe jabeei.

Ikusirik Urbeltz auzoko administradoreak, Urbeltz auzoko 27tik 39ra bitarteko etheen jabeen izenean 2011ko uztailaren 28an idatzi bat aurkeztu dutela Udalbatzarrak eskatutakoari erantzunez, ondorengo diolarik:

*“Urbeltz auzoko telebistaren antena lekuz aldatzeko eskaeraren argibideak*

*Antenas Tolosakoak gaia aztertuta gero zera proposatzen du:*

*Antena lekuz aldatzeko, kultur etxearen barrutik egin ezker obrak egin beharko liraketela-eta, bere gomendioa da lanak kanpotik egitea.*

*Momentu honetan toma dagoen lekutik hartu, lurrazpian jardinetik pasa kultu-etxekeo teilaturatik datorren bajantearen ondoraino, eta haren albotik teilaturaino igo. Antena bajantearen gainean dagoen tximiniari, atzealdera gelditzen dela, lotuko liokete eta harainoko haria teilaren azpitik emango. Instalazio guztia behar den bezala babestuta joango omen da.*


*Seinalearen neurketak egin dituzte eta leku horretan oso ondo sartzen omen da.*

*Zuen erantzunaren zai geratzen gara.”*

Gaia azterturik, Udalbatza honek, Igor Barandiaran zinegotziaren abstentzioarekin, aho batez ondorengo

#### ERABAKITZEN DU:

LEHENA: Urbeltz auzoko 27,28,29,30,32,33,34,35,37,38 eta 39 etheen jabeak eginiko eskaera onestu, hau da, Kultur-etxekeo teilatuan antena kolektiboa jartzeko baimena ematea.



## LARRAULGO UDALA

(GIPUZKOA)

BIGARRENA: Erabaki honen berri interesdunei ematea.

### **11.2. LARRAULGO SAN ESTEBAN JAIETAN TXURRERI BAT JARTZEKO BAIMENA ESKAERA. L.D.S.**

Ikusirik L.D.S. jaunak eginiko eskaera, non Larraulgo San Esteban jaietan txurreri postu bat jartzeko baimena eskaera egiten duen.

Gaia azterturik, Udalbatza honek, aho batez, ondorengoa

**ERABAKITZEN DU:**

BAKARRA: L.D.S. jaunak eginiko eskaera onestu, hau da, San Esteban jaietan txurreri postu bat jartzeko baimena ematea. Alkatearekin adostu beharko duelarik aipaturiko postua non jarri.

### **11.3. HURRENGO UDALBATZA**

Batzarkideek aho batez onesten dute, hurrengo Udalbatza 2011ko irailaren 7an, arratsaldeko 7.30 orduetan egitea.

### **HAMABIGARREN PUNTUA ERREGU, GALDERAK ETA MOZIOAK**

Ez dira aurkezten.

*Beste gairik ez dagoenez, gaueko 21.00 orduak direnean Alkate orde jaunak bilera amaitutzat ematen du, nik, Idazkari-Kontuhartzaile naizen honek akta honetan jasotakoa ziurtatzen dudalarik.*

ALKATEA

IDAZKARI-KONTUHARTZAILEA